



Portugaleteko hirigintza diagnostikoan parte hartzeko

JARRAIBIDEAK

Ongi etorri. Mila esker “Portu, emakumeon hiria” ekimen honetan parte hartzeagatik.

Hona hemen jarraibide batzuk, erraz-erraz azaltzeko zer egin behar duzun parte hartu nahi izanez gero.

NOLA PARTE HARTU?

1.TALDE ERAGILEA

Portugaleteko 30-40 emakume gonbidatuko ditugu parte hartze aktiboa izan dezaten.

Nor izan daiteke talde eragileko kidea?

- Portugaleteko emakume-talde eta elkarten ordezkariak.
- Udal teknikari eta politikariak.
- Kale eta tarte publikoen diseinua aldatu nahi duten emakumeak.
- Haur edo mendekoen zaintzaileak.
- Kultur, belaunaldi, funtzio eta etnia aniztasuna ordezkatzeko duten emakumeak.
- Portugaleteko zonalde eta auzune guztietako biztanleak.
- Parte hartu nahi duen oro, emakume zein gizon.

Zer egingo du talde eragileak?

- Hiru lantegietara bertaratu eta parte hartu.
- Informazio gehigarria ekarri WhatsApp talde baten bidez.
- Prozesuaren berri eman euren ingurukoek: adiskide, senide, lankideei...
- Ingurukoak animatu, haiek ere informazio gehigarria ekar diezaioten diagnostikoari.
- Ingurukoek ekarriak bildu eta diagnostikoan txertatu.

Noiz?

- Lehen lantegia apirilaren 26an egingo dugu 17:00etan Santa Klara kulturtegian.
- Bigarrena (8 ibilbide) maiatzaren 3tik 24ra; hainbat talde txiki egingo dugu eta eragileek ibilbide bat egingo dute.
- Hirugarren lantegia, azkenik, ekainaren 21ean egingo dugu 18:00etan Santa Klara kulturtegian.

2. DIAGNOSTIKOAN PARTE HARTZEKO BESTE MODU BATZUK

Eragileak funtsezkoak dira informazioa biltzeko orduan. Horregatik nahi dugu euren ingurukoak (elkartekideak, familiakoak, adiskideak) anima ditzaten, haiek ere informazioa ekar dezaten diagnostikora.

Nola ekar dezakete informazioa?

- Hobetu beharreko tokien argazkiak, iritziak zein proposamenak argitaratuz sare sozialetan (Twitter, Facebook eta Instagram), #portuigualdad traolarekin.
- Informazio hori bera WhatsApp bidez ere bidaliz eragileei; eragileek gero talde osoarekin banatuko dute.
- Galdetegi bat betez. Esteka bidaliko dizugu, galdetegia betetzeko moua izan dezazun. Linean betetzeko modurik ez daukatenei inprimitu egingo diegu galdetegia <https://goo.gl/ffvFN8>

Noiz ekar daiteke informazio gehigarria?

- Epea apirilaren 26tik maiatzaren 25era egongo da zabalik.

ZURE ZAIN GAUDE!

1. IBILBIDEA. BUENA VISTA I LOS HOYOS

Noiz: Maiatzak 3, 11:00h

Non: Buenavista osasun egoitzan

2. IBILBIDEA. DOCTOR AREIZA PARKEA I ABARO KALEA

Noiz: Maiatzak 3, 18:00h

Non: U.N.E.D. egoitzan

3. IBILBIDEA. SAN ROKE +

Noiz: Maiatzak 10, 11:00h

Non: Carlos VII etorbideko metro irteeran

4. IBILBIDEA. ALDE ZAHARRA +

Noiz: Maiatzak 10, 18:00h

Non: Santa Clara Kulturgunean

5. IBILBIDEA. REPELEGA

Noiz: Maiatzak 17, 11:00h

Non: Maestro Mateo Hernandez plazan

6. IBILBIDEA. MARTINEZ DE LAS RIVAS PARQUEA

Noiz: Maiatzak 17, 18:00h

Non: Martinez de las Rivas parkean

7. IBILBIDEA. PANDO

Noiz: Maiatzak 24, 11:00h

Non: Pando Aisia polikiroldegian

8. IBILBIDEA. LA FLORIDA I LOS LLANOS

Noiz: Maiatzak 24, 18:00h

Non: La Florida jolas parkean

APUNTA ZAITEZ:

telf: 944729212 | bienestar@portugalete.org



Ayuntamiento de
Portugaleteko Udala



URBANBAT